

# Ikastetxeentzako hezkuntza programa

2023-2024 ikasturtea



CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

Parte hartzeko ekimenen bitartez, museoak eta haren edukia ezagutu eta gozatu ahal izateko diseinatuta, programak hezkuntza-etapa bakoitzera egokitutako eta curriculum-edukietara doitutako jarduerak aurkezten ditu, horiek transmititzeko tresna eraginkor gisa jantzia eta haren inguruko guztia erabiliz.

Jantziak ikasleen eta curriculum-konpetentzien garapena errazteko eskaintzen dituen aukera ugariak ditu oinarri programak, hautemateko, gogoetarako eta sormenerako prozesuak txertatuz.

Hala, hezkuntza-etapa guztietan zeharkakoak diren hiru baliotan —Garapen Jasangarriko Helburuei eta 2030eko Agendari dagozkienak— antolatuta daude jarduerak, eta proposamenek horietako bakoitzaren beharrianak eta berezitasunak aintzat hartuta jorratzen dituzte: Aniztasuna, Jasangarritasuna eta Sormena.

## Aniztasuna

|                                       |           |       |
|---------------------------------------|-----------|-------|
| Eraldatutako gorputzak                | HH        | 5 or. |
| Silueta (u)topikoak                   | LH 5./6.  | 6 or. |
| Gorputz jantziak eta identitateak     | DBH 3./4. | 7 or. |
| Balenciaga, tradizioa eta berrikuntza | BATX-LH   | 8 or. |
| Balenciaga eta siluetaren iraultza    | BATX-LH   | 9 or. |

## Jasangarritasuna

|                                      |           |        |
|--------------------------------------|-----------|--------|
| Kolore eta tindagai naturalak        | LH 3./4.  | 10 or. |
| Hariari jarraitu!                    | LH 5./6   | 11 or. |
| Kustomizatu eta birziklatu           | DBH 1./2. | 12 or. |
| Balenciaga eta goi mailako joskintza | BATX-LH   | 13 or. |

## Sormena

|                                 |                    |        |
|---------------------------------|--------------------|--------|
| Ehungintza arloko ofizioak      | LH 1./2.           | 18 or. |
| Agertokira                      | LH 5./6.           | 19 or. |
| Mugituz                         | LH 5./6.-DBH 1./2. | 20 or. |
| Azaletik bolumenera             | DBH 1./2.          | 21 or. |
| Moda eta elektronika sortzailea | DBH 3./4.          | 22 or. |
| Balenciaga eta teknika          | BATX-LH            | 23 or. |

---

|                 |        |
|-----------------|--------|
| Datu praktikoak | 24 or. |
|-----------------|--------|

---

# Aniztasuna



# Aniztasuna

## Helburuak

---

Jendarte bidezkoa, inklusiboa eta askea eraikitzen lagundu.

---

Aniztasunarekiko eta pluraltasunarekiko errespetua sustatu.

---

Estereotipo femeninoei buruzko gogoeta eta ikuspegi kritikoa bultzatu.

---

Balioak aldatzea eta nesken nahiz emakumeen ahalduak bideratu.

---

Jantziak zuzeneko lotura du bera janzten duen gorputzaren formarekin. Jantzi baten egikerak berehala bideratzen du arreta gorputzeko atal jakinetara, horiek nabarmenduz edo ezkutatuz, lortu nahi den silueta irudikatzeko. Silueta hori, kultura-produktu moduan, aldakorra izan da historian zehar.

Gorputzaren eta soinekoaren arteko harremana ulertzeak fenomeno horiek testuinguruan kokatzen laguntzen du, izaera femeninoa eraikitzeke estereotipoak identifikatzen eta zalantzan jartzen laguntzen du —ikuspegi patriarkaletik—, eta aniztasunarekiko errespetua sustatzen du.

# Eraldatutako gorputzak

Museoekiko eta, bereziki, modarekiko topaketa goiztiarra errazteko asmoz, jarduerak siluetaren ideiarra eta jantzitako gorputzaren sormen-aukeretara hurbiltzea proposatzen du. Bolumen bereziak osatzen dituzten obren behaketa eta analisisa sustatuko da, eta irudimena eta esperimentazioa bultzatuko da, kapa bat sortuz.



## Haur Hezkuntza



5 urte



1 ordu 30 min



Erakusketara bisita eta tailerra

Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia  
Komunikatzeko kompetentzia  
Elkarbizitzarako kompetentzia

# Silueta (u)topikoak

Ekimenean siluetaren esanahian sakonduko da, estalgarri dituen jantzien bidez gorputzak izaten dituen aldaketak hautemateko. Jantziak gorputz-formetan eragiten dituen ekintzak ezagutzea, horien esanahiak ondorioztatzea eta estereotipo fisikoei buruz hausnartzea dira jarduerak barne hartuko dituen esperientzietako batzuk. Ibilbidea osatzeko, ikasleek silueta berriak sortuko dituzte, korrante experimental surrealistik sortutako metodo original bat oinarri hartuta eta «Ondorioak» denbora-pasa zaharrear oinarrituta.

## Lehen Hezkuntza



5./6. mailak



2 ordu



Erakusketara bisita eta tailerra

Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia  
Arterako kompetentzia



# Gorputz jantziak eta identitateak

Norberaren nortasuna eta haren transmisioa jantzitako gorputzaren eta irudiaren bidez izango dira jarduera honen ardatz. Ikasleak pertsonen irudikatze fisiko jantziak eta janzteko moduen eta moden bilakaeraz gogoeta egitera gonbidatuko ditugu, bai eta estereotiporik gabe nor bere diseinua asmatzera ere.



Bigarren Hezkuntza



3./4. mailak



2 ordu



Erakusketara bisita eta tailerra

Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia  
Arterako kompetentzia



# Balenciaga, tradizioa eta berrikuntza

Bisita honen ardatz hartuko dira Cristóbal Balenciagaren sormenean eragin handia izan zuten iturriak eta hark zuen modaren interpretazio berezia, haren ezagutza kultural eta estetikoan oinarrituta. Izan ere, jostunak gaitasun berezia zuen tradizioa modu berritzailean interpretatzeko eta, aldi berean, emakumeen gorputzaren inguruko lerro eta bolumen berriak aztertzeko.



Batxilergoa  
Lanbide Heziketa

🕒 1 ordu 15min

📍 Erakusketara bisita dinamizatua

Arterako konpetentzia  
Gizarterako eta herritertasunerako konpetentzia

# Balenciaga eta siluetaren iraultza

Cristóbal Balenciagak emakumeentzako jantzien historiari egin dakiokeen ekarpenik handienetako bat egin zuen: silueta berriak sortzea. Ezarritako joerak hautsi zituzten lerro naturalak eta kurbatuak eta bolumen harrigarriak dituzten modeloak ezagutuko dituzte ikasleek.



Batxilergoa  
Lanbide Heziketa

🕒 1 ordu 15min

📍 Erakusketara bisita dinamizatua

Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia  
Arterako kompetentzia

# Jasangarritasuna



# Jasangarritasuna

## Helburuak

---

Modaren industriak eragindako ingurumen- eta gizarte-kostuaz gogoeta egin.

---

Moda modu arduratsu eta jasangarrian sortu eta kontsumitu beharraz sentsibilizatu eta kontzientziatu, horren bitartez modaren industriak eta muturreko kontsumismoak planetan daukaten kalteko eragin handia desagerrarazten laguntzeko.

---

Ikuspegi kritikoa sustatu eta etorkizuneko kontsumitzaileei eta/edo sortzaileei irizpideak osatzen lagundu.

---

Modak eragin negatibo handia dauka ingurumenean, eta, egun bizi dugun klima eta energia krisi garaian, premiaz aintzat hartu eta aztertu behar da. Mundu mailako industria kutsatzaileen artean bigarrena da, «moda azkarra» izenekoaren eraginez batik bat; horren logika osatzen dute fabrikazio merkeak, kontsumo sarriak eta jantziak aldi labur batean erabiltzeak.

Modan ere naturaren mugekin bateragarriak diren praktiketan kontzientziaztea ez da, beraz, beste gai bat gehiago, baizik eta egunero zeharkako jarrerak eta ohiturak sustatu eta eztabaidak eragiteko betebeharra.

# Kolore eta tindagai naturalak\*

Ikasleek oinarrizko koloreak zein diren eta kolore osagarriak nola lortzen diren ikasiko dute. Nola ematen zaie kolorea oihalei? Zer material erabiltzen dira horretarako? Zein da ehuna tindatzearen ingurumen-inpaktua? Zein dira eragin txikieneko alternatibak? Landareak eta tindaketarako beste baliabide natural batzuk ezagutzea eta sailkatzea, tindatze-praktikak egitea eta, horrela, ehun lagin kromatiko bat egitea proposatuko da.

\*Jarduera berritua

Lehen Hezkuntza



3./4. mailak




2 ordu



Erakusketara bisita eta tailerra

Zientziarako kompetentzia  
Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia



# Hariari jarraitu!

Zuntza ehun bat egiteko lehengaia da, eta ehuna, aldi berean, jantzi bat ekoizteko lehengaia. Hamaika jatorri — naturalak, artifizialak, sintetikoak, teknologikoak, etab.— eta ezaugarritakoak dira, eta gaur egun irtenbide potentzial biodegradagarriak eta jatorri naturalekoak ikertzen dira moda-industria jasangarriago baterako. Jarduera honetan, ikasleek ehun-zuntz naturalen jatorria eta ehunen eraikuntza-prozesua ezagutuko dituzte, eta, ehungailu bat erabiliz, oinarriko ehun bat ehunduko dute.

Lehen Hezkuntza



5./6. mailak



2 ordu



Erakusketara bisita eta tailerra

Zientziarako konpetentzia  
Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia  
Konpetentzia motorra



# Kustomizatu eta birziklatu\*

Jardueraren helburua ikasleak naturaren mugekin bateragarriak diren bizimoduak eta garapen-moduak hartzeko beharraz, modan gaur egungo kontsumo-ohiturei buruz hausnartzeaz eta alternatiba errespetagarriagoak eta jasangarriagoak hautatzeko gakoak finkatzeaz kontzientziatzea da. Tailerrean, ikasleek erabiltzen ez duten kamiseta bat manipulatu eta motxilan eraldatuko dute, hari beste balio eta bizitza erabilgarri handiagoa emanez.

\*Jarduera berritua

Bigarren Hezkuntza



1./2. mailak



2 ordu



Erakusketara bisita eta tailerra

Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia  
Arterako kompetentzia



# Balenciaga eta goi mailako joskintza. *Slow fashion*

Goi-mailako jantzigintza, eskuz, material eksklusiboak eta bikainak erabiliz egindako jantziak, galkorra ez den modaren adierazpide gorentzat har daiteke hasieratik. Horiek horrela, *slow fashion* edo moda geldoa gero eta indar handiagoa hartzen ari den honetan, bisita honek aurreko garaietakoak diren baina orainean ere indarrean dauden kontzeptuetara itzultzea proposatzen digu, modako urtaroaren araberako egungo kontsumo azkarraz eta masiboaz hausnartzeko.

Batxilergoa  
Lanbide Heziketa

🕒 1 ordu 15min

📍 Erakusketara bisita dinamizatua

Arterako kompetentzia  
Zientziarako kompetentzia





# Sormena



# Sormena

## Helburuak

---

Kultura-ondareari daukan balioa ematea bultzatu, eta, bereziki, Cristóbal Balenciagaren sormenetik eratorritako ondareari.

---

Modaren baitan praktika artistikoa, sortzailea eta berritzailea sustatu.

---

Moda sormen- eta berrikuntza-adierazpen garrantzitsua da. Bere helburu estetikutik edo intelektualetik, moda, adierazpen artistiko eta kultural gisa, kontzeptuen gurutzaketa anitzen adierazle izan daiteke. Patroiak ontzeko matematika eta geometria, alde batetik, elektronik, 3D inprimaketa edo material adimendunen iraultza, beste alde batetik, etengabe eraldatzen eta esperimentatzen ari den ekosistema aberats baten adibide teoriko nahiz praktikoak proposa daitezke modan.

# Ehungintza arloko ofizioak

Jarduera honen helburua da modaren sektoreko ogibideak ikusaraztea eta azken produktuaren atzean dagoen artisau-lanarekiko errespetua sustatzea. Ikasleek jantzien ekoizpenean eta dekorazioan inplikaturako ofizioak identifikatuko dituzte, neurrirako jantzien manufacturaren eta fabrikazio mekanizatuaren arteko desberdintasunak ezagutuko dituzte, eta, era berean, goi joskintzako etxe bateko tailer eta aretoen funtzionamendua ezagutuko dute. Bisitaren osagarri, praktika bat egingo da eta, horretan, ikasleek kamiseta edo kapela bat landuko dute, koloreekin, formekin eta ehundurekin jolastuz.

## Lehen Hezkuntza



1./2. mailak



2 ordu



Erakusketara bisita eta tailerra

Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia  
Arterako konpetentzia



# Agertokira

Jantzia kultura materialaren elementu ahaltua da, une bakoitzeko gizabanakoari eta gizarteari erantzuten dion ispilua, eta, arlo materialean ez ezik, alderdi ez-materialetan eta sinbolikoetan ere sakontzeko aukera ematen duena. Zer gertatuko litzateke museoko jantziek gordetzen dituzten ideia, erabilera eta istorioek bizia hartuko balute? Jarduera honetan, jantzien ahalmen eszenikoa aztertzea da asmoa, inspiratzeko eta estimulatzeko daukaten gaitasuna baliatuta, eta ikasleen gorputzaren eta komunikazio- eta adierazpen-gaitasuna bideratuz, performance-pieza labur bat sortuz.

## Lehen Hezkuntza



5./6. mailak




2 ordu



Erakusketara bisita eta tailerra


Arterako konpetentzia  
Konpetentzia motorra



# Mugituz

Dantzaren eta gorputz-adierazpenaren bitartez, museoan ikusgai dauden artelan estatikoetara hurbiltzea proposatzen du jarduera honek. Ikasleek bi dantzari izango dituzte bidelagun, museoa mugituz bizitzeko bidaia dantzatu paregabe.

DABekin lankidetzan eskainitako jarduera  
Kontsultatu baldintzak



Lehen Hezkuntza  
Bigarren Hezkuntza



LH 5./6. mailak - BH 1./2. mailak



2 ordu



Erakusketara bisita eta tailerra

Konpetentzia motorra  
Arterako konpetentzia

# Azaletik bolumenera

Jarduera honen helburua Cristóbal Balenciagaren sorkarietan agerikoak diren forma- eta geometria-kontzeptuak transmititzea da. Bi dimentsioko patroï baten gainean irudi geometrikoak konfiguraturuz eta problema matematiko errazak ebaztean oinarritutako tratamendua eginez, ikasleek gorputzera egokitutako hiru dimentsioko piezak lortuko dituzte.



Bigarren Hezkuntza



1./2. mailak



2 ordu



Erakusketara bisita eta tailerra

Matematikarako konpetentzia

# Moda eta elektronika sortzailea

Modari aplikaturiko teknologiariko buruzko tailer honen helburua elektronikako oinarriko jakintzak eskaintzea da. Parte-hartzaileek zirkuitu bat eraikitzen ikasiko dute, material berriekin esperimendatuko dute eta elektronikaren diziplina ehunetan txertatzeak eskaintzen dituen sormen-aukerak arakatuko dituzte.

Bigarren Hezkuntza



3./4. mailak




2 ordu 15 min



Erakusketara bisita eta tailerra

Teknologiarako kompetentzia



# Balenciaga eta teknika

Cristóbal Balenciagaren maisutasun teknikoa izango da bisita honen ardatz nagusia, eta hark bere obretan aplikatu zuen esperimentazioa eta bizi izan zuen bilakaera erakutsiko zaie ikasleei. Ikusgai dauden jantziak xehe analizatuko dira jostunaren proposamen berritzaileak hobeto ulertzeko eta bereganatzeko baliabideekin batera.



Batxilergoa  
Lanbide Heziketa



1 ordu 15min



Erakusketara bisita dinamizatua

Arterako konpetentzia  
Matematikarako konpetentzia  
Teknologiarako konpetentzia



---

|                   |  |
|-------------------|--|
| Egutegia          | 2023ko urritik 2024ko ekainera bitartean.  |
| Orduategia        | Goizeko orduategian.   |
| Hizkuntzak        | Euskara, gaztelania eta ingelesa.  |
| Parte-hartzaileak | Elkarbizitza talde egonkorra osatzen duten ikasleak baino ez dira aldi berean hartuko. Talde bakoitzak gutxienez arduradun batekin eta gehienez birekin etorri beharko du (Haur Hezkuntzako taldeen kasuan izan ezik; kasu horretan, hiru arduradun ere etor daitezke).  |
| Prezioa, taldeko  | 75€ bisita dinamizatuek eta 90€ tailer-bisitek. Irakasleek doan dute sarrera. Ikasturte batean ikastetxe beretik etorritako hirugarren taldearen ondorengoei (hirugarrena barne), %25eko deskontua aplikatuko zaie tarifan.<br><br>Nahitaezkoa da izena ematea.  |
| Neurrira          | Ikastetxeentzako hezkuntza-programa tresna dinamiko eta irekia da. Hala, Cristóbal Balenciaga Museoaren Hezkuntza Sailak komunikazio etenik gabea eta baterako lankidetzaz ezarri nahi ditu ikastetxeekin, eta aipatutako jarduerak ikastetxeon interesen eta beharren arabera aldatzeko eta moldatzeko aukera eskaintzen du. Horregatik, ekimenetan parte hartzeko asmoa duten irakasleei eta ikasgelako programaziora egokitzeko informazioa lortu nahi dutenei gonbit egiten diegu museoko taldearekin harremanetan jartzera, eta hezkuntza-arloan eskaintzen diren aukera ugariak aztertzeraz.<br><br>Garrantzitsua! Zure ikasgelako ikasleren batek hezkuntzako premia bereziak baditu, esan museoko taldeari bisita egin baino lehenago. |
| Harremanetarako   | T +34 943 008 840<br>didaktika@crislobalbalenciagamuseoa.com   |

---

Aldamar Parkea 6  
20808 Getaria  
T +34 943 008 840  
info@crislobalbalenciagamuseoa.com  
www.crislobalbalenciagamuseoa.com

# B

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

